



V. BIDEO SORMEN LEHIAKETA ARNASGUNEETAKO IKASLEENTZAT

OINARRIAK



Abian da 'Arnasetik' bideo sormen lehiaketaren bosgarren edizioa, euskararen arnaguneak osatzen dituzten udalerrietako gazteei zuzendua (LH-5etik DBH-4ra). Ekimen honen bidez, udalerrri euskaldunetako gazteen hizkuntza ohituren inguruan gogoeta piztu nahi du. Hala, euskaraz ekoiztiko ikus-entzunezko piezen eta sormen lanen erakusleho bihurtuko da Arnasetik.

Gazteen etorkizunerako begirada sortzaileak pizteko asmoarekin, lehiaketan modu ezberdinetan parte-hartzeko aukera egongo da eta kategoria bakoitzean sariak egongo dira. Horrek esan nahi du banaka edo talde lanean jorratu daitezkeela lanak.

1. Lehiaketaren helburuak:

Gazteak arnaguneen garrantziaz ohartzea eta arnaguneetako kide izatearen harrotasuna erakustea.

2. Parte-hartzea:

- Arnaguneetako 10-16 urte bitarteko edozein sortzailek har dezake parte banaka edo taldeka.
- Parte-hartzaileek aurrez adierazitako prozesuan parte hartu eta lehiaketarako epeak eta irizpideak bete beharko dituzte.

3. Epeak:

- Lehiaketan izena emateko epea: irailaren 15etik urriaren 15era.
- Lanak aurkezteko epea: irailaren 15etik urriaren 30era.
- Sari banaketa ekitaldia: azaroak 26.

4. Kategoriak:

Adinaren arabera sailkatutako hiru kategoria daude eta kategoria bakoitzean aurkeztu beharreko lanak ezberdinak izango dira.

- **A kategoria: Dakienak, ba al daki?** · LH 5-6
- **B kategoria: Ongi-etorria** · DBH 1-2
- **C kategoria: Eusle mode on** · DBH 3-4

5. Izen-ematea:

Lanak online aurkeztu behar dira, www.arnasagara.eus webgunean eta honako urrats hauek jarraitu behar dira:

***Nahi den tresna erabili daiteke, We Transfer, Google Drive, Tori.eus, Nextcloud...**

- Bideoa sortu aurretik, izena eman ahal izango da urriaren 8ra arte, Arnasetik Bideo Sormen Lehiaketa - 2026 webgunean dagoen "Parte hartu" galdetegia betez.
- Behin bideoa sortuta, Arnasetik Bideo Sormen Lehiaketa - 2026 webgunean "Bideoa bidali" galdetegia betetzea derrigorrezkoa izango da lehiaketan parte hartzeko.
- Izena ematerakoan, pribatutasun eta erabilera abisuak onartuko dira.
- Lanak aurrez Internetera igo beharko dira* eta artxiboa deskargatzeko esteka gehitu izen-emate galdetegian honi dagokion atalean.
- Artxiboek 2GB baino gutxiagoko tamaina izan beharko dute.
- Zalantza edo arazorik izanez gero, arnasagara@gmail.com helbidera idatzi daiteke.

6. Lanen irizpideak:

- Oinarria:
 - **Dakienak, ba al daki?:** "Daki ala ez daki?" lehiaketa formatuan, herriko berezitasun, esamolde eta xelebrekerien inguruko galdera-erantzunen lehiaketa egin beharko duzue herrian zehar. Lehiakideek aurkezleak egindako galderari zuzen edo oker erantzungo dioten herritarrek bilatu beharko dituzte herrian barna.
 - **Ongi-etorria:** Etorri berri den ikaskide bati, zuen herria, ohiturak eta berezitasunak erakutsi beharko dizkiozue. "Bertso Dub" formatuan, musika eta mugimendua adieraziz, nola emango zenioke ongi etorria arnagune batera etorri berri den kide bati?
 - **Eusle mode on:** Sare sozialak egun komunikaziorako kanal garrantzitsuetako bat dira. Askotan, batek gaztelera erabiltzen duenean, nahiz eta denok euskaraz jakin, hizkuntzaz aldatzeko tendentzia izan ohi da. Honi buelta ematea izango da bideoaren helburua. Adierazki ohikoa den elkarrizketa digital bat euskararen erabilera sustatzeko keinuei garrantzia emanez.

- Hizkuntza: euskara izango da lehiaketara aurkeztu diren lanetan erabiliko den hizkuntza, bideo-istorioen elkarrizketak edo off ahotsa erabiltzen badira.
- Iraupena: lanek gehienez 2 minutu iraungo dute.
- Formatua: bideoa formatu horizontalean edo bertikalean grabatu daiteke. Edizioa eta post-produkzioa ere nahi diren programekin egin daitezke.
- Ikasleek egindako lanak izan behar dira.
- Sortzaile eskubiderik ez duten abesti eta irudiak erabili behar dira, YouTubera igotzerakoan baimen arazoren bat badago, ezin izango da lehiaketan parte hartu.

7. Sari nagusiak:

2.000 euro banatuko dira lau kategoriatan. Kategoria bakoitzak 500 euroko saria izango du.

- A kategoriako lanik onena.
- B kategoriako lanik onena.
- C kategoriako lanik onena.
- Publikoaren saria.

500 euroko sari bakoitza, honako hauetan gastatu ahal izango da nahi den moduan: ikas-bidaian, IrisarriLand-en, Durangoko Azokan, EITB-ko Goazen! eta Irabazi arte! telesailen merchandising-ean, etab.

8. Lanak baloratzeko erabiliko diren irizpideak ondorengoak dira:

- Seigarren puntuan aipatutako irizpideak betetzea.
- Euskararen erabilera.
- Sormena.
- Gidoigintza.

9. Hedapena:

- Antolakuntzaren esku gelditzen dira lehiaketara aurkeztutako lanen erabilera eskubideak. Betiere, lan horien hedapena egingo da lehiaketaren asmoa beteko duten ekimen eta eginkizunetan.

- Egileak haien lanen eskubideen jabe diren arren, Arnasetik lehiaketak irabazleen bideoak proiektatzeko eta bere plataformetan partekatzeko baimena izango du, programak egiten duen edozein sustapen ekitalditan.

10. Oinarriak onartzea:

- Lehiaketan parte hartzeak oinarri guztiak onartzea dakar.
- Lanak aurkeztu beharko dira Creative Commons lizentziarekin.
- Musika erabiltzekotan lizentzia librekoa edo bideoarentzat propio sortutakoa izan behar du.
- Lehiaketako parte-hartzaileak adin txikikoak izanik, lehiaketan parte-hartzearekin ulertuko da adin-txikikoak bere tutore legalen oniritzia duela eta ondorioz, irudi erabilera baimendua dagoela.
- Aurkeztutako lanak eta sari banaketan ateratako irudiak Arnasa Gara webgunean eta bere sareetan, zein egitasmo honen sustapen helburuak dituen beste edozein kanaletan erabiltzeko baimena ematen dela ulertuko da.
- Gai tratamendua: ez dira onartuko arraza, sinesmen, etnia, adin, erlijio, sexu, genero identitate, sexu orientazio, itxura fisiko edo pertsonen gaitasunak iraintzen, gutxiesten edo jazartzen dituzten lanak. Hala ere, antolatzaileek ez dituzte bere egiten bideo-istorioetan egiten diren adierazpenak, erabilitako irudiak, edota emandako iritziak, beraz, ez dute horien gaineko inolako erantzunkizunik.
- Ez dira onartuko eduki iraingarriak edota, errespetu gabekoak. Bideoen bat egokitzen jotzen ez bada, lehiaketatik kanpo geldituko da.

11. Sustatzaileak:

Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta UEMA.